



Ni Andoni naiz, 12 urte ditut eta Azpeitian bizi naiz. 4 urte nituenean Asperger sindromea nuela esan zidaten.

Nire burua deskonpentsatu xamarra dago: helduei gustatzen zaizkien elkarriketak jarraitzeko gai naiz eta, aldiz, zapatilen lokarriak eta alkandoren botoiak lotzerakoan ezin duzue imajina zer nolako nahastea egin dezaketen. Azkenean, aurten ikasi ditut ondo lotzen. Orain arte pentsatu izan dut, nire amak, sorginduta zeuden alkandorak erosten zizkidala, beti goian botoi bat libre eta azpian berriz botoi-zulo bat libre geratzen zirelako.

Ironiak ulertzea oso zaila egiten zait, horregatik, nire lagunek txiste bat kontatzen didatenean, barrezka hasten naiz taldean integratuta sentitzeko, baina horrek ez du esan nahi txistea ulertu dudanik.

Irudimen handia dut, horregatik ipuinak idaztea eta komikiak marraztea asko gustatzen zait baina handitan bideojoko egilea izango naiz.

Me llamo Andoni, tengo 12 años y vivo en Azpeitia. A los 4 años me dijeron que tenía Síndrome de Asperger.

Mi mente está un poco descompensada. Puedo ser muy capaz de mantener una conversación de adultos y en cambio no os podéis imaginar el lío que puedo hacer para atarme los cordones de mis zapatillas o atarme los botones de mis camisas. Este año, por fin, he conseguido aprender a atarme los cordones yo solo. Hasta ahora pensaba que las camisas que me compraba mi madre estaban embrujadas, ya que siempre sobraba un botón arriba y un ojal abajo.

Las ironías no las entiendo muy bien, por eso, normalmente, cuando me cuentan chistes me río para sentirme integrado en el grupo pero eso no significa que haya entendido el chiste.

Tengo muchísima imaginación, por eso me encanta escribir cuentos y dibujar cómics, pero de mayor voy a ser creador de videojuegos.

7



#mareaurdina

